EKIMENAK PENTSATU, ANTOLATU ETA GAUZATZEN DIHARDUTEN LAGUNAK

Emakume eta gizonen partaidetza erabakietan

- Nortzuk parte hartzen duzue ekimena pentsatu eta antolatzeko **erabakietan**? Emakumeak eta gizonak presente daude? Zein neurritan?

- Ekimenak pentsatzeko eta antolatzeko bileretan emakumeek eta gizonek **modu orekatuan hartzen duzue parte**?

Emakume eta gizonen arteko lan-banaketa

- **Nola banatzen** dituzue egin beharreko **lanak** emakume eta gizonen artean?

- Nork egiten ditu **aktak**, **jendaurrean hitz** egin edo erakunde nahiz eragileekin **solaskide-lanak**, aretoa/espazioa prestatu, jardueraren ondoren **espazioa txukundu,** jantziez arduratu, **haurren ongizateaz** arduratu, **janaria prestatu**, etab.?

- **Tradizionalki emakumeek** egin izan dituzten lanak (ikusezinagoak eta gutxiago baloratzen direnak) emakumeek egiten jarraitzen dute?

- **Eta tradizionalki gizonek** egin izan dituzten lanak (ikusgarriagoak eta gehiago baloratzen direnak) gizonek egiten jarraitzen dute?



SARRERA

Egiten duguna **ez da neutroa**. Inkontzienteki bada ere, egiten ditugun gauza gehienek emakume eta gizonen arteko desberdinkeriak mantentzen edo indartzen laguntzen dute edo, alderantziz, desberdinkeria horiek gutxitzen lagun dezakete.

Horregatik, garrantzitsua da edozein jarduera antolatzerakoan, **egiten dugun horren inguruan hausnartzea**, desberdinkeriak birsortu ordez, berdintasuna sustatzeko. Izan ere, berdintasuna bultzatzea ez da eragile feministen **ardura** soilik, **kultura-elkarteena, auzo-elkateena eta bestelako eragileena** ere bada.

Gida honek, hain zuzen, geure begirada fintzen eta **egiten dugun horretan arreta jartzen laguntzea** bilatzen du.

On dagizuela!



Kultur-jardueran genero-berdintasuna sustatzeko jarraibideak

Hernaniko Udala

LEKUA, ORDUTEGIA ETA BESTELAKO ZERBITZUAK

- Jardueren **tokia nahiz ordutegia** zehazterakoan, emakume anitzek eduki ditzaketen beharrak, ohiturak eta aukerak kontuan hartzen dituzue?

- Antolatutako jardueretan **zaintza-zerbitzua** jartzeko aukera aztertzen duzue?

- Antolatutako ekimenetan **eraso matxistak prebenitzeko eta horiei aurre egiteko** neurriak hartzen dituzue?

EKIMENEN HARTZAILEAK

- **Nortzuk parte hartzen** dute ekimenean nagusiki? Nortzuk dira ekimenaren hartzaileak? Emakumeak, gizonak, orekatua?

- Nagusiki gizonek parte hartzen badute, **emakumeen parte-hartzea sustatzeko** eta errazteko neurririk hartzen duzue?

- Zaintzarekin, hezkuntzarekin eta kulturarekin lotutako ekimenetan ohikoa da emakumeek neurri handiagoan parte hartzea, historikoki ezarri zaien rolagatik. Ekintza hauetan, ezartzen duzue neurririk **gizonen partaidetza sustatzeko**?

Kultura eta Berdintasun sailek elkarlanean garatutako ekimena.

KOMUNIKAZIOA

- **Karteletan, esku-orrietan, argazkietan...** emakumeak eta gizonak modu orekatuan agertzen dira?

- Emakume eta gizonen **aniztasuna islatzen duten irudiak** erabiltzen dituzue?

- **Emakumeek zer rol eta irudi** ordezkatzen dute? Ohiko rol eta edertasun-ereduari erantzuten diote? Puskatzen dute, nolabait, ohiko irudia? Emakume indartsuak, ekimendunak, ausartak, beren bizitzen protagonistak...

- **Gizonek zer rol eta irudi** ordezkatzen dute? Ohiko rol eta edertasun-ereduari erantzuten diote? Puskatzen dute, nolabait, ohiko irudia? Gizon zaurgarriak, emoziodunak, beldurtiak...

- **Hizkuntzaren erabilerari dagokionez**, emakumeak eta gizonak ikusarazten dituen hizkera erabiltzen duzue? Adibidez, **gaztelaniaz egiterakoan,** maskulino generikoa erabiltzen duzue pertsona guztiei buruz hitz egiteko edo beste formula batzuk bilatzen dituzue emakumeak ere izendatzeko?

- **Aurreiritzi sexista, homofobo eta transfoboetan** oinarritutako hizkuntza erabiltzen duzue?

EKIMENETAKO PROTAGONISTAK

- Nortzuk dira ekimeneko **protagonista nagusiak**? Emakumeak, gizonak, orekatua da?

- Zer **paper edo funtzio** jokatzen dute emakumeek eta zer gizonek? Tradizionalki emakumeei eta gizonei ezarritako rolak mantentzen dituzue edo gainditu egiten dituzue?

- Arlo ezberdinetan **emakumeek egindako lanak eta ekarpenak** ikusarazteko jarduerak programatzen dituzue? Hitzaldiak, kantu- eta bertso-emanaldiak, jardunaldiak, erakusketak...

EKIMENEN EDUKIAK

- **Programatutako edukiek** kontuan hartzen dituzte emakumeen arazoak, beharrak eta interesak, oro har?

- Eta kontuan hartzen al dituzue **emakume-kolektibo ezberdinen arazoak, beharrak eta interesak**? Adin, jatorri, ikasketa-maila eta egoera sozioekonomiko ezberdinetako emakumeenak, alegia.

- Antolatzen dituzuen ekimenetan **genero-rol eta –estereotipoak zalantzan** jartzen dituzten edukiak lantzen dituzue? Balio eta eduki eraldatzaileak lantzen diren edukiak lehenesten dituzue? Edo genero-rol tradizionalak mantentzen dituzue?

- **Berdintasunaren eta feminismoaren alde** diharduten pertsonen eta eragileen ekarpenei ikusgarritasuna ematen diezue?